

# Egitura



Berri Arabiako penintsulan izan da Patxi Lopez, inbertitzaile bila joanda. Irudian, Dubaira egindako bisitan. BERRIA

## Diru bila, atera mundura

**Atzerriko kapitala erakartzeko atal bat sortu berri du Eusko Jaurlaritzak SPRIren barruan; krisiaren aurretik, 1,4 bilioi eurorenak ere izan ziren inbertsio zuzenak mundu osoan.**

Ivan Santamaria

**E**ra batera edo bestera atzerriko kapitala erakartzeko gogoia egon izan da beti administrazioen buruan. Euskal Herrian, esaterako, egoitza nagusia atzerrian duten 500 enpresa inguru lanean ari dira gaur egun. Multinazionalak erositako bertako enpresak dira, aliantzen ondorio, edo, besterik gabe, lanto-

ki bat ezartzeko erabaki soilari erantzun zioten, merkatu arrazoiek gidatuta. Kasu askotan, erakunde publikoek bitartekari lana egin dute proiektua aurrera ateratzeko, eta konpainia ugari laguntza ekonomiko eta administrazioak eskuratu izan dituzte, trukean lana eta lanpostuak sortzeko hitza eman ondoren.

Eusko Jaurlaritzak orain dela egun batzuk aurkeztu du jendarean atzerriko inbertsioak era-

kartzeko estrategia berria. Ez du esan nahi orain arte Industria Sailak lan hori egiten ez zuenik, baina aurrerantzean SPRI eraldaketa lehiakorrerako sozietate publikoaren atal batek izango du ardura hori. Inbertsioak «sistematikoki» erakartzeko lehen saioa izango da, Eusko Jaurlaritzaren arabera.

*Invest in the Basque Country* (Inbertitu Euskal Herrian) izena jarri diote atal horri. Jaurlaritz

ez da halako proiektu bat esku artean duen Euskal Herriko erakunde bakarra. Nafarroako Gobernuak antzeko bat du martxan, Sodena elkartearen bidez. Ipar Euskal Herrian, berriz, Baionako Merkataritza Ganberaren, Pirinio Atlantikoetako Kontseilua-ren eta Akitaniako eskualdearen eskuetan dago ardura hori.

Ahaleginak merezi duela eta fruituak etorriko direla erakustea soilik emaitzen bidez lortuko dute. Behintzat, pare bat proiektu dute esku artean SPRIk eta Sodenak, izen-abizenekin. Invest in the Basque Country aurkezteko ekitaldia baliatu zuen Patxi Lopez Jaurlaritzako lehendakariak Cecycle enpresarekin lortu duten akordioa jakinarazteko. Mexikoko konpainia bioteknologia alorrean lan egiten du —azterketa

klinikoak egiten ditu—, eta Arabako Teknologia Parkean kokatuko da, Miñanon. Nafarroako Gobernuari dagokionez, azaroan ezagutarazi zuen Txinako Foton Motor multinazionalarekin egindako hitzarmena, Tafallan autobus elektrikoak egingo dituen lantoki bat eratzeko. Martxan jartzeko oraindik ez du eperik, hala ere.

Iragarpenak alde batera utzita, atzerriko inbertsioak 14.600 milioi euro ekarri ditu Hego Euskal Herrira 1995. urtetik, ICEX Espainiako Kanpo Merkataritzako Institutuak emandako datuen arabera. Haatik, datu hori gehiago azaltzea komeni da. Izan ere, diruaren erdia baino gehiago —7.800 milioi inguru— Atzerri- (Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## 22 Atzerriko inbertsioa Euskal Herrian

(Aurreko orrialdetik dator)

ko Akzioak Edukitzeko Enpresen eskuetan dago. Multinazionalak tratu fiskal hobea lortzeko erabiltzen dituzten bitartekoak baino ez dira enpresa horiek. Horietan dagoen dirua ez da inbertsio produktiboa, ez da gastatzen lurzoru erosteko, lantokiak eraikitzeko edo langileak kontratatzeko. Alegia, ez du aberastasunik sortzen inbertitzen den herrialdean.

Atzerriko inbertsio zuzenak gorabehera handiak izaten ditu urtetik urtera. Neurri bateraino, logikoa da, urtero ez direlako lantoki berriak eraikitzen edo ezarri ta daudenetan produkzio lerro berriak martxan jartzen. Inbertsio produktiboa aintzat hartuta, 1999. urtea izan zen onena Hegoaldean. Urte hartan 1.480 milioi izan ziren, BPGaren %3. Bigarren marka 2007. urtekoa izan zen. Orduan, 1.361 milioiren inbertsioak egin ziren, baina barne produktuan izan zuten pisua nabarmen txikiagoa izan zen, %1,6. Krisia ere nabaritu da alor horretan, emaitzarik eskasena 2009. urtekoa izan zelako: 128 milioi euro, BPGaren %0,15.

### Globalizazioaren itzala


Noski, Euskal Herriko eragileak ez daude bakarrik inbertsioak erakartzeko lasterketa horretan. Are gehiago, globalizazioaren ez-tanda dela eta, lasterketa hori inoiz baino gogorragoa da. Orain arte enpresen asmoetatik at zeuden herrialde asko buru-belarri sartu dira alor horretan. Eta urtero diru asko mugitzen duen alor bat da. Merkataritza eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Kon-

14.600 milioi iritsi dira Hegoaldera atzerritik; erdiak baino ez ziren inbertsio produktiboa

90eko hamarkadan, zerga-pizgarriak izan ziren enpresak erakartzeko bitartekoa

Lantoki handienak dituzten atzerriko taldeak autogintzan eta altzairuan ari dira

## Atzerriko enpresa garrantzitsuenak Euskal Herrian



ITURRIA: SPRI, BAIONAKO MERKATAL GANBERA, BERRIA

ferentziak (UNCTAD) atzerriko inbertsioari buruz egiten duen txostenaren arabera, 2010. urtean 840.000 milioi inguruko kapitala iritsi zen herrialdeetara kanpotik. Krisiaren zama bistan da: bi urte arinago 1,47 bilioi euro izan ziren.

Oraindik ere, diru gehiena garatutako herrialdeetara iristen da, baina egoera azkar aldatu da. Garatzeko bidean dauden herrialdeek jasotzen duten inbertsioa %90 handitu zen 2005. eta 2008. urteen artean. Ondoren

apur bat jaitsi bada ere, ez du zerkusirik herrialde garatuetan izan duen erorketa itzelarekin. 2007tik 2009ra heren batera murriztu zen, hain zuzen ere.

Atzerriko inbertsioaren zati handi bat korporazio multinazionaleri dagokie. UNCTADren ustez, munduan gisa horretako 82.000 enpresa inguru daude. Ia mende berria hasi arte hamarretik bederatzik garatutako herrialdeetan zeuden, baina apurka horri buelta ematen ari zaio. Gaur egun, enpresa multinazionalen

%28k egoitza garatzeko bidean dauden herrialdeetan edo herrialde txiroetan dute.

Halaber, sorterritik landa aktibogehien duten multinazional ez-finantzarioen zerrenda argitaratu ohi du UNCTADk. AEBetako General Electric eta Erresuma Batuko Shell eta Vodafone dira lehenbiziko hirurak. Zerrenda horretan Euskal Herrian lantokiak dituzten konpainia ezagun ugari daude. Arcelor-Mittal (10. postuan), Volkswagen (11), Daimler AG (21) eta Nestle (27), adibidez.

Zerrenda horretako 24. tokian euskal enpresa bat dago: Iberdrola.

### Azken ahaleginak

Euskal Herrian multinazional askok dute aspalditik negozioaren eta produkzioaren parte nabarmen bat. Kasu askotan, alde zurretik ezarri ta zeuden lantokiak amaitu dute atzerriko talde handien eskuetan. Hona etorri eta lanpostu askosortu dituztenak ez dira ugariak izan azken urteetan. Gainera, estrategia berriak ere

erabili beharko dituzte gobernuek.

Zerga-pizgarriak eskaintzen ahalegindu ziren administrazioak 90eko hamarkadan. Aktibo finkoetan inbertsioak egitearen truke kenkariak eta *opor fiskalak* jarri zituzten mahai gainean. Hala iritsi zen Arabara Hego Koreako Daewoo Electronics, esaterako. Alta, kenkari horien aurka ezarritako helegiteei jaramon egin, eta oraindik eztabaidan dabilta Europako auzitegi-tan legezkoak ote diren. Emaitza

Nondik dator inbertsioen dirua Euskal Herrira?

→ Pertsoneri traba ugari jartzen zaizkie mugak gainditzeko, eta ez, ordea, diruari. Hego Euskal Herrian egindako atzerriko inbertsioa nondik iritsi den aztertuta, ongi ikusten da hori. ICEX Espainiako Kanpo Merkataritzako Institutuak baditu horren inguruko estatistika bitxiak.

Dirua etorri den azken herrialdea eta inbertsio osoa hartzen bada —Atzerriko Enpresen Akzioak Edukitzeko Enpresak barne—, nabarmena da egitura fiskal *malguak* dituzten herrialdeen presentzia. Suitza (2.028 milioi) nagusietakoa da. Edo, zuzenean, zerga paradisubatu: 1993. eta 2010. urteen artean, 683 milioi iritsi ziren Kaiman uharteetatik.

Inbertsio ustez produktiboa eta diruaren azken jatorria hartzen badira, berriz, Luxenburgoko agertzen da zerrrendako lehen tokian, ziur asko Arcelor-Mittalen egoitza duelako. Atzean, Herbehereak, Erresuma Batua eta Alemania daude.

aldekoa edo kontrakoa izanik ere, ez da erraza izango berriro ere zerga-pizgarriak erabili nahi izatea atzerriko dirua erakartzeko.

Inbertsioak erakartzen ahalegintzeaz gain, ezarrita dauden enpresei ere arreta berezia eskaini nahi die Jaurlaritzak. 500 baino gehiago dira, eta sektore batzuk garapen handia izan dute. Lantegirik handienak autogintzari lotuta daude. Daimlerrek Mercedes furgoiak egiten ditu Gasteizen, Volkswagenek Polo autoak Iruñean, eta Michelinak eta Bridgestonek pneumatikoak ekoizten dituzte Gasteiz, Lasarte eta Basaurin. Altzairugintzako talde handienetako batzuk —Arcelor-Mittal eta Gerdau— lantegi eta langile ugari dituzte, halaber.

Atzerriko konpainiek lanpostu ugari bermatzen dituzte gaur egun, baina horrek ez du esan nahi alde ilunik ez dutenik. Euskal enpresak kanpoko konpainien eskuetan geratzeak erabakiguneak urruntzea esan nahi du. Azken kasua Guascor izan da. AEBetako Dresser-Rand taldearen eskuetan geratuko da. Bestalde, ez dira gutxi izan lantokiak ixtea eta alde egitea erabaki dutenak. Gasteizen Saunier Duval, Gueñesen Reckitt Benckiser eta Alonsotegin ThyssenKrupp, besteak beste. Azken garaietako hiru adibide baino ez dira.

Tomas Orbea • SPRI taldeko zuzendaria

## «Lana eta lanpostuak sortzen dituen inbertsioa nahi dugu»

*Herrialde bakoitzaren indarguneak eta miseriak agerian utzi ditu globalizazioak, eta arreta pizteko estrategia eskatzen du horrek. «Ona izatea ez da aski; hori saltzen jakin behar duzu»*

I.S.

Eraldaketa lehiakorrerako sozietateak, SPRIk, inbertsioa erakartzeko ardura izango du Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Lan horri helduko diote mundu osoan dituen hamabi bulegoek dagoeneko.

**G Atzerriko inbertsioa erakartzeko estrategia berria aurkeztu duzue. Nolako aldaketak izango ditu orain arte egiten zenaren aldean?**

**E** Invest in the Basque Country [Inbertitu Euskal Herrian] ez da zerbait erabat berria; urte asko daramatzagu lan horretan. Baina, orain arte, guregana etortzen ziren proiektuak identifikatzen genituen; guk ez genuen jotzen haiengana zuzenean, nahiz eta gero inbertsioa erakartzen saiatu. Hemendik aurrera, lan hori guztia ordena handiagoarekin egingo dugu.

**G Inbertsioa erakartzeko ardura SPRIren atal berri batek izango du. Zeintzuk dira horren oinarriak?**

**E** Geure estrategia antolatuta egongo da; proaktiboak izango gara. Interesatzen zaizkigun inbertsioak zeintzuk diren definitu, eta horiei helduko diegu. Inbertsio horiek teknologia dutelako izan litezke interesgarriak, edo aliantzak ahalbidetzen dituztelako. Sektore edo herrialde jakin batzuk bilatzeko asmoa ere izango dugu.

**G Atzerriko inbertsioa produkzio lantegiekin parekatu ohi dugu. Hori da asmoa?**

**E** Geure helmuga inbertsio zuzena da. Hots, lana ekartzen duena, lanpostuak sortzen dituen, eta ez hemengo enpresa bat erosi nahi duena gero beste herrialde batera lekualdatzeko. Geure industriarekin lotu eta hemen geratzeko asmoa dutenen inbertsioak nahi ditugu, dagoeneko EAEn dauden atzerriko 400 enpresen gisakoak.

**G Garai batean atzerriko inbertsioa erakartzeko pizgarri nagusia fiskalitatea izan zen. Haatik, auzitegiaren izandako arazoek bestelako bide batzuk asmatzera behartuko zaituzte, ezta?**

**E** Munduko herrialde edo eskualde bakoitzak bere indargunean ditu. Noski, ez dut uste atzerriko enpresa bat bera ere Euskal Herrira soldata merkeen truke



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

etorriko denik. Hemen ez ditu aurkituko, baina beste gauza asko bai. Esaterako, populazioaren %6 gara, baina estatuko industria produkzioaren %10 baino gehiago ekoizten dugu. Kluster eta enpresa elkarre indartsuak ditugu, 25 baino gehiago. Goi tituludun gehien duen Europako eskualdea gara. Geure produktibitateak Europako batez bestekoa gainditzen du, nabarmen, eta beste gauza asko.

**G Globalizazioarekin inbertsioak erakartzeko lehia asko gogortu da, herrialde berri asko indarrez sartu direlako. Nola ezberdindu zeure eskaintza besteengandik?**

**E** Globalizazioak asko gerturatu gaitu, eta horri esker geure indarguneak ikus daitezke, baina baita geure miseriak ere. Lehia oso estua da. Ona izatea ez da nahikoa; zarena saltzen ere jakin behar duzu. Herrialdea kanpoan saltzeko, bide asko daude. Esaterako, orain dela gutxi SPRIkoak Txilen izan gara, tokiko garapen agentzia gisara egiten dugun lana era-

kutsi dugu, eta erosi digute. Alegia, geurea bezalako elkarre bat Txilen garatuko dugu. Horrek ere zeure herrialdearen prestigioa handitzen du, eta herrialde horretara doazen euskal enpresei erraztasunak ematen dizkie.

**G Inbertitzaile berriak ere agertu dira. Batez ere, Txina, baina baita ekialde hurbileko herrialdeak eta beste batzuk ere. Jaurlaritzako lehendakariak eta SPRIk bidaia batzuk egin dituzte herrialde horietara. Nolako ondorioak ateratu dituzte?**

**E** Industria Koiunturaren Behatokia izan dugun azken bileran egiaztatu dugu nazioartekotzea, ekonomia irekia izatea, ezinbesteko premia dela. Edo bazaude edo ez zaude. BRIC herrialdeetan egon gara [Brasil, Errusia, Txina eta India], baita Arabiar Emirerri Batuetan eta Qatarren ere. Frutuak eman dituzte, gaur egun salmentak plangintza handiagoa eskatzen duelako, eta dimentsio egokia. Adibide bat jartzearen, Arabiar Emirerri Batuetako erietxe garrantzitsu bat hornitzeko

eskaintza egin du AVIC ingeniari-tza eta aholkularitza klusterrak. Baturik joan direlako lortu dute hori, elkar hartuta, eta ez enpresa bakoitza bere kasa.

**G Eta herrialde horiek Euskal Herrian dirua jartzea posible ikusten duzu?**

**E** Gertatu da dagoeneko. Qatarren inbertsioa izan du geure enpresa handienetako batek [Iberdrolak]. Beste jarduera batzuetan ere lanean ari dira, bidean gaude, eta emaitzak espero ditugu.

**G Nolako sektoreek izango dute lehen tasuna inbertsioak bilatzeko tenorean?**

**E** Besteengandik ezberdintzeko aukera, geure balio erantsia, zenbait alorretan dago. Teknologian eta fabrikazio sistemetan onak gara. Garapen maila adierazgarria du geure sektore aeronautikoak ere. Bestalde, ontzi bereziak egiteko itsas teknologia aurreratu dugu, eta, zer esanik ez, oso makina-erreminta sektore garrantzitsua dugu. Horietan guz-

*«Badakigu inor ez dela etorriko soldata merkeen bila Euskal Herrira; beste gauza asko ditugu»*

tietan indartsuak gara. Hortik landa, energia, *bio* eta *nano* sektoreetan gehiago lortzeko aukera izan genezake.

**G Kriaren aurretik, enpresak lekualdatzeko arriskua zegoen kezka nagusien artean; batez ere, erabakigunea atzerrian dituzten konpainiak lekualdatzeko. SPRIk esan du eroso egon daitezela lan egingo duela. Nola?**

**E** Azken finean, enpresaburu batek, Euskal Herrian inbertitzeko ideia duenean, hemen lanean ari den herrikide bati galdetu ohi dio. Zergei buruz informazioa eskatzen du, lan auziei buruz, azpiegiturak nolakoak diren jakin nahi du, edo bizitza maila bera zein den. Geure artean dauden atzerriko 400 enpresa horiek aholku emaile posibleak dira, eta etorri nahi dutenak izutzen badituzte, beste nonbait jarriko dute euren negozioa. Guk *aftercare* deitzen dugun hori, 400 enpresa horiei arreta berezia eman eta inbertitzaile klub bat sortzea, beti da garrantzitsua.